

HITZ BITAN

INDIA

Pakistanen aurkako «gerrarako erabat prestatuta» dagoela dio Armadako buruak

India Pakistanen aurkako «gerrarako erabat prestatuta» dagoela adierazi zuen atzo herrialde horretako Armadako buru S. Padmanabhan jeneralak. Era berean, bi herrialdeen arteko mugaldeen egoera «larria» zela nabarmendu zuen Padmanabhanek. Gaur arte atzeratu da Pakistango presidente Pervez Musharrafek, ustez, ekintzaile islamisten aurkako neurriak iragartzeko atzo egin behar zuen agerraldia.

ALEMANIA

Angela Merkel Batasun Kristau Demokratikoak kantzilertzarako hautagai kargua utzi du

Angela Merkel Alemaniako Batasun Kristau Demokratiko buruak kantzilertzarako hautagai izateari uko egin zion atzo, irabazteko aukera gutxi zituela argudiatuz. «Beti esan izan dut kontserbadoreen kantzilertzarako hautagaiak irabazteko aukera gehien zituena izan behar zuela», arrazoitu zuen Merkelek. Hala, Edmund Stoiber izango da postu horretarako hautagaia.

SUDAN

Somalia baketzeko biltzarra egitea hitzartu dute Ekialdeko Afrikako gobernuburuak

Martxoan Somalia baketzeko adiskidetze biltzar nazionala egitea adostu zuten atzo, Sudanen bilduta dauden Ekialdeko Afrikako hainbat herrialdetako estatu eta gobernuburuak. Somaliak ez du gobernu zentralik izan 1991tik. Sudan baketzeko ebazpen bat ere onartu zuten. Era berean, «terrorismoa» salatu eta horren aurka bat egitea onartu zuten Sudanen bildutakoek.

ARGENTINA. Aurrezkiak ateratzeko eskatasuna eskatu dute Buenos Airesen

FABIAN GREDILLAS / EPA

Istilu larriak izan ziren Buenos Airesen atzo.

Pesoa %41 baliogutxitu da merkatu librean den estreinako aldiari, herritarren protesten artean

Agentziak | BUENOS AIRES

Gobernuak igandean onarturiko %28,5eko baliogutxitzea gainditurik, %41eko balioa galdu zuen atzo Argentinako pesoak, merkatu librean izaniko lehen egunean. Herritarrek bitartean, kalera atera ziren berriz, gobernuaren neurrien aurka protesta egiteko.

Urduritasun eta ikusmin handiz jarraitu zuten herritar ugari atzo, pesoak dolarrarekiko izan zuten bilakaera, Buenos Aires hiriburuko erdialdean jarritako arbeletan.

Abenduaren 19tik bertan behera ziren dibisa operazioak irekitzean, gora egin zuen dolarrek pesoarekiko. Agintariak aditza eman zuten, dolarren balioa gutxituz joango da datoen egunotan, eta 1,4 pesotan eza-

rririko truke ofizialera hurbilduko da.

Istiluak goizaldean

Buenos Aireseko biztanleek goizaldean eginiko protestaldian istilu larriak izan ziren. Lisakarrotan hainbat bankuri eta dendari eraso zioten protestan ari zirenek.

Bankuetan duten dirua ateratzeko herritarrei jarritako mugak indarrean jarraitzea zen protestak piztu zituen arrazoia. Eduardo Duhalderen gobernuak erabaki zuenez, herritarrek pesotan dituzten aurrezkiak epeka itzultzen hasiko dira datorren martxotik aurrera, eta dolarretan direnak, 2003. urtean hasita.

«Atzoko protesta ulergarria da, eta orain gobernuak talde ekonomikoa jendeari arazoak arintzeko neurriak nola findu

aztertzen ari da», esan zuen Eduardo Amadeo gobernuko eledunak.

Buenos Aireseko protestetan 5.000 lagunek hartu zuten parte. Gomazko pilotak erabiliz oldartu zitzaizen Polizia herritarrei. Protestariak bankuei, jate-txeei eta telefono kabineei su eman zieten.

Menemek pobrezia handiagoa iragarri du

Pesoaren baliogutxitzea pobrezia handiagoa ekarriko duen «akats estrategikoa» zela esan zuen atzo Carlos Menem Argentinako presidente ohiak, egunkari batean argitaraturiko iragarki baten bidez. Baliogutxitzea «langileen soldaten kalte-rako eta aurrezkiak atzerrian dituztenen mesederako izango da», esan zuen.

ITALIA

Europarekin «pasioa» duela esan dio Silvio Berlusconi D'Estaingi

Agentziak | ERROMA

EB Europako Batasunarekin engaiatuta jarraitzen zuela, eta Europarekin «pasioa» zuela esan zion Silvio Berlusconi Italiako lehen ministroak Valery Giscard D'Estaing EBko Konbentzioko presidenteari, atzo Erroman egin dako bileran. EBrekin jarraitzea hotza duela dioten kritikak uxatu nahi izan zituen Berlusconi adierazpen horiekin.

Bere Gobernuak Batasunaren hedapenari eta horretarako Konbentzioko egingo dituen beharrezko erreformei «babes osoa» emango ziela ziurtatu zion Italiako lehen ministroak D'Estaingi. «Berak egindako adierazpenak gertutik aztertu ditut, eta ziur nago Berlusconi ahal duen guztia egingo duela Konbentzioko arrakasta izan dezan», adierazi zuen Valery Giscard D'Estaingek.

Azken hilabeteetan gogor kritikatu dute Berlusconi EBrekiko hainbat auzitan —atxilotze agindu europarra kasu— izan duen jarreragatik. Kritika horiek areagotu eta larritasuna piztu zen Hama-bosten artean Renato Ruggiero Italiako Atzerri ministroak Berlusconi gobernuak EBrekiko zuen jarrerarengatik aste honetan dimisioa aurkeztu zuenean.

Italia Batasuneko «europazaleena»

Italia Batasuneko herrialde kideetatik «europazaleena» zela eta bera sentimendu horren «jarraitzaile sutsuena» zela ziurtatu zuen Berlusconi atzo D'Estaingekin bildu aurretik. Hori zela eta, egin zizkioten kritikek funtsik ez zutela adierazi zuen Italiako lehen ministroak.

«Europarekiko dudak pasioa eta fedea argi uzten duten dozenaka adierazpen egin ditut 1994tik hona», adierazi zuen Berlusconi. Batasuneko kideak lasaitzen saiatu da Italiako lehen ministroa azken astean mota horretako adierazpenekin.



Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria

Donostialdeko enpresa batean

TELEMARKETINerako LANGILEAK

behar dira, telefonoa bidezko kanpaina komertzial bati ekiteko.

(17 erref.)

ESKAINIKO DA: - Lan kontratua.
- Soldata finkoa + komisioa.

BALDINTZAK: - Euskaraz ondo jakitea.

BALORATUKO DA: - Eskarmentua izatea antzeko lanetan.

Interesdunak curriculum, argazkia eta harremanetarako telefonoa bidali urtarrilaren 20a baino lehen helbide honetara:

1887 posta kutxa - DONOSTIA

Gutun-azalean lanpostuari dagokion erreferentzi zenbakia zehaztu.